

## DATUA

**Bideoan grabaturik**

Ibon Fernandez de Iradiren ihesaren parte bat bideoan grabaturik dauka Poliziak, polizia etxearen giblean dagoen kamerari esker. Iradik egoitzatik ate nagusira joateko behar izan zituen 15 segundoko dira xeheki grabatuak, Poliziaren arabera. Memento horretan egoitzaren kanpoaldean poliziakide bakarra zegoela azpimarratu dute, azken hau aurreko atea zaintzen zegoelarik.

rako bitartekoak dituelako eta Iradik klandestinitate osoan egon beharko duelako edo ezin duela duelako ETArekin berriz ere harremanetan erraz sartu». PSOE alderdiko Fernandez Aguilarek Kongresuan autoritate frantsesek «ihesari buruzko datu fidagarriak» emango dituela baieztatu zuen, eta gertatutakoa «lezioa» izateaz gain «ETaren kontra inoiz ez dela arreta galdu behar» adierazi zuen.

Atzoko egunean oraindik ere nabariak ziren Baionan eta inguruetan *Epervier* deituriko planaren baitan Poliziak ezarri zituen bide kontrolak, nahiz eta prentsa iturri batzuen arabera, «esperantza guti» dagoen Fernandez Iradi atxilotzeko, «eskualde horretan ETak laguntza handia» duelako.

# Etxeberria «bortizki» atxilotu zutela salatu du Askatasunak

Berarekin batera atxilotu zuten Gotzon Aranburu Puerta del Hierro erietxetik Gregorio Marañon ospitalera eraman dute

Erredakzioa | DONOSTIA

**J.M. ETXEBERRIA**

**Atxilotzera zihoazenean «bizia galduko zuela» uste izan zuen. Madrilgo Soto del Real espetxera eraman dute**

Espainiako Auzitegi Nazionalako bigarren aretoko epaile Ismael Morenok espetxea agindu du Guardia Zibilarekin tiroketa bat izan ostean, ustez ETako kide izateagatik lehenengo asteazkenean atxilotu zituzten Jesus Mari Etxeberria eta Gotzon Aranbururentzat. Tiroketan Antonio Molina Martin guardia zibila hil zen, eta larri zauritu ziren Guardia Zibil bat eta Gotzon Aranburu. Bi ustezko etakideek herenegun deklaratu zuten Ismael Moreno epailearen aurrean. Askatasunak Etxeberriaren atxilotzeta «oso bortitza» izan zela salatu du.

Ohar baten bidez Askatasunak jakinarazi zuenez, Jesus Mari Etxeberria goizean pasa zen epailearen aurretik. Ez zuen deklaraziorik egin, eta Madrileko (Espainia) Soto del Real espetxera eraman zuten

inkomunikaturik. Gotzon Aranburu Puerta del Hierro ospitalean galdekatu zuen Ismael Moreno epaileak. Tiroketan Aranburu larri zauritu egin zen eta osatzen ari da. Askatasunak adierazi zuenez, Etxeberriaren antzera Aranburuk ez zuen deklaraziorik egin, eta Gregorio Marañon erietxera eraman zuten. Epaileak, espetxeratze komunikatua agindu du berarentzat.

**«Egoera kezagarria»**

Askatasunak «kezagarritzat» jo zuen Jesus Mari Etxeberria-

**GOTZON ARANBURU**

**Epaileak espetxe komunikatua agindu du berarentzat, eta Senide eta abokatuarekin hitz egiteko aukera izan du**

ren egoera: «Oso argal eta hitz egiteko zailtasunekin iritsi zen. Momentu batean, ez zuela ezer esateko, eta ez zuela gehiago aretoan egon nahi esan zien epaile eta fiskalari. Fiskalak galdeketarekin jarraitu nahi izan zuen, baina epaileak espetxeratze inkomunikatua agindu zuen». Askatasunak salatu du auzitegian izan zen bitartean, familiari ez ziotela berarekin egoten utzi.

Atxilotzera zihoazen unean, Etxeberriak «bizia galduko zuela» uste izan zuela jakin ahal izan zuen Askatasunak.

«Polizia erotuta zebilen bere inguruan, baina Donostiako auto ugari zegoenez ez zen ezer gertatu. Hala ere, atxilotzeta oso bortitza izan zen. Poliziaren jarrera ikusita, bere buruan zauriak egin zituen».


Guardia Zibilarekin Madril inguruan izandako tiroketa ostean, Etxeberriak ihes egitea lortu zuen. Hala ere, Espainiako Poliziak gauean atxilotu zuen Donostian.

Atxilotu zutenetik epailearen aurrera pasa zen arte, Etxeberria gose eta egarri greban egon da. Poliziaren aurrean deklaratu arren, «ez duela paperik sinatu» ere jakinarazi du Askatasunak.

Gotzon Aranburu, Gregorio Marañon ospitaleko eremu penitentziariora eraman zuten, epailearen aurretik pasa ostean. Orain arte, Puerta del Hierro ospitalean egon da, baina epaileak espetxea agindu ostean erietxez aldatzea erabaki du. Bertan, familia eta abokatuarekin izan zen, eta jakinarazi zien Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak galdekatu dutela azken egunetan.

*Eskerrik asko gure bezero guztiei,  
Kursaal-en izan direnean eman diguten atsegina gozoagatik.*

*Forionak*



KURSAAL  
DONOSTIA SAN SEBASTIAN  
www.kursaal.org